

DEBAko UDALA

2018SPLE0005  
5. BILERA: EZOHIOA 2018-04-27

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ezohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** bosgarrena

**Eguna:** 2018/04/27

**Hasiera-ordua:** 18:30

**Amaiera-ordua:** 18:50

**Onarpen-eguna:** 2018/05/31

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN


MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

### **Bertaratzeak eta irteerak**

#### **Gora-beherak**


Gai zerrendako 2.puntua bozkatuta eta galde erreguekin hasi aurretik Udalbatzarrak, bere legezko hamahiru kideetatik hamar bileran daudela, ondoko adierazpena onartu du:

“Atzo osteguna, 2016ko San Ferminetan, uztailaren 7an, emakume batek 5 gizonezkoengandik jasandako bortxaketaren inguruko epaia eman zen. Honen aurrean Debako Udalak ondorengo adierazpena egiten du:



## DEBAko UDALA


- 1.- Debako Udalak maitasuna eta elkartasuna adierazi nahi dio biktima izan den emakumeari eta bere gertuko guztiei.
- 2.- Epaiarekiko gure erabateko desadostasuna agertzea, ez baita abusua izan, bortxaketa baizik.
- 3.- Epaiaren ondorioz jendartean sortu den etsipen eta haserrea ulertzen dugu, eta herritarren aldarriarekin bat egiten dugu, konpartitzen ez dugun epai honen aurrean.
- 4.- Emakumeon askatasun osorako eskubidea aldarrikatzen dugu, eta edonolako eraso sexistarik onartzen ez dugula berresten dugu.
- 5.- Talde feministarekin, herriko elkarte ezberdinekin eta herritarrekin orohar, elkarlanean, emakumeen eskubideen defentsan eta jasaten dugun biolentzia sexista errotik aldatzeko lan egiteko konpromezua adierazten dugu.
- 6.- Udalak dei egiten die herritarrei epai honen ondorioz egingo diren mobilizazioetara parte hartzera.”



DEBAko UDALA

**Aztergaiak:**

1. 01/2018ko kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.
2. Debako udalerrian, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinari arautzaileei egindako alegazioen ondoren behin betiko onespén proposamena.
3. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1. 01/2018ko kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.**

#### ***Txostena***

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.


Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua arabera, **kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.**

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa



## DEBAko UDALA

### ***Erabakia.***

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren eta idazkariaren txostenaren berri eduki ondoren, Udaltzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### **KREDITU GEHIGARRIAK**


<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
2	Txosen eta irizpen teknikoak (topografia, eguneko zentroko proiektua, hilerriko proiektua, Angulero kaleko proiektua)	50.000,00
6	Santa Catalina	72.600,00
6	Hilerria (lursaila)	120.000,00
6	Luzaro ikastetzeko inbertsioak	30.000,00
6	Frontoiko terraza	28.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>301.100,00</b>

### **FINANTZAKETA**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8 (SARRERAK)	Altxortegiko gerakina	301.100,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>301.100,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

- 2. Debako udalerrian, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinari arautzaileei egindako alegazioen ondoren behin betiko onespenez proposamena.**



## DEBAko UDALA

Ane Egidazu zinegotziak hitza hartu du eta gaiaren nondik norakoak azaldu ditu, nola Udalbatzarrak emandako hasierako onespeneke testuan jasotzen zen “Debako Udalerrian baina Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremutik kanpo”, baina egindako kultura batzordean Aimar Lasak proposatu zuela Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremua barne egotea eta 6. Puntua aldatzea eta batzordeak proposamenok onartu zituela. Azaldu du, diru-laguntzak arautzeko orduan batzordearen nahia beti izan dela orain arte bezala diru-laguntzak esleitzea eta araudia betetzea, eta horretarako, oinarriak idatzi beharra zegoela eta diru-laguntzak arautu beharra zegoela. Azaldu du gerora, eta beraien artean hitz egin ondoren, konturatu direla esaldi hori kenduz gero ez litzatekeela argi geratuko gaia, izan ere TETak bere aurrekontua dauka eta bere eskumena.

Maider Zubikarai zinegotziak erantzun du, kontua ez dela nork eskatzen duen, baizik eta kultura ekimen hori ona izatea. Bere ustez, diru-laguntza eskatu ahal du Itziarko talde batek Debako kaskoan ekintza bat egiteko. Esan du, Debako herri guztiko elkarteek proposamena baloratu beharko litzatekeela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

### BOZKETA


◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>10</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>8</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BONGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b> .....	<b>2</b>
◇ <b>Abstenitu direnak:</b> MAIDER ZUBICARAY, JOSE LUIS ALBIZU, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b>	<b>0</b>
◇ <b>Emaitza:</b> UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

### *Erabakia.*

Kultura batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarra osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du goian adierazitako gehiengoarekin:

**Lehenengo.-** Ondoko alegazioa gaitzetsi:  
Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremua barneratzea.

**Bigarrena.-** Ondoko alegazioa onartzea:  
Araudiaren 6. Puntuan “ESKABIDEAK BALORATU ETA BIDERATZEA” instrukzio organoaren partaidetzan ondokoa gehitu: ”kultura batzordeak izendatutako kultura batzordean parte hartzen duten bi kide”.



## DEBAko UDALA

**Hirugarrena.-** Debako udalerrian, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinari arautzaileei behin betiko onespena ematea.

**Laugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea oinarrien testua.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita bi hibaleteko epean.

### **3.- Eskariak eta galderak.**

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du idazkari lanpostua betetzearen inguruan. Alkateak jarraitutako jardunbidearen berri eman du.

Maiderrekin galdetu du langileen gaiaren inguruan eta Barne Erregimena eta Pertsonala batzordearen bilera egitea proposatu du. Alkateak erantzun dio maiatzaren 3an bilera egingo dela eta funtzionarioen ordezkariek kargua laga zuenez eta izendapen berri bat egitea denbora eramango duenez langileekin adostuta erdibide bat hartu dela ordezkaritzari dagokionez.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

## **IDAZKARIA**

Deban, 2018ko apirilaren 27an